

*EAEko 2007 - 2010 Ingurumen
Esparruko Programa*

Non zer

EAEko 2007 - 2010 Ingurumen Esparruko Programa

Sarrera	3
1. Balorazio orokorra.	4
2. Alderdi nabarmengarriei buruzko balorazioa.	5
2.1. Airearen kalitatea	5
2.2. Hondakinen sorkuntza eta tratamendua	7
2.3. Garraiobidearen banaketa	9
2.4. Lurzoruaren erabilera	11
2.5. Klima-aldaketa (berotegi-efektuko gasak, energiaren sorkuntza eta kontsumoa)	12
3. Ondorioztapenak	13

EAEko 2007 - 2010

Ingurumen Esparruko Programa

ELA - Ingurumena

SARRERA

Garapen Jasangarriaren aldeko (2002-2020) euskal ingurumen-estrategiak garapen jasangarria ezarri zuen helburutzat, EAEn garatu beharreko ingurumen-politika osorako. Euskal ingurumen-estrategiak 2002-2006 Ingurumen Esparruko Programaz ekin zion bideari. Aldi hori amaituta, zehaztutako helburuetan emandako aurrerapausoak batere esanguratsuak ez direlarik (aurrera-go ikusiko ditugu adibide batzuk), Eusko Jaurkitzak 2007-2010 Ingurumen Esparruko II. Programa aurkeztu du.

2007-2010 Ingurumen Esparruko II. Programak hasieratik onartzen du Euskal Herriko ingurumen-egoera kolokakoa dela, negutegi-efektuko gasen isurpenak, hiriguneetako garraioari loturiko aire-kutsadura, lurraldearen artifizializazioa eta zatikapena, bizi-aniztasunaren kontrako mehatxuak edo hiri-hondakinen sorkuntza bezain alderdi garrantzitsuetan.

EAEko egoerari buruzko diagnostikoaren laburpena negatiboa da; alegia, ez da ezer hobetu, eta, gainera, txarrerako joera ageri da. Hona hemen horren adibide argi batzuk: gero eta hondakin gehiago sortzea, baliabide naturalen kontsumoa etengabe haztea, kutsadurak giza osasunari dakartzion arriskuak larriagotzea, lurzoruen narriadura eta okupazioa, mugikortasunaren eta garraioaren gehiegizko hazkundera, planeta berotzea eta bizi-aniztasuna galtzea, besteak beste.

IEPak, funtsean, oraingo kontsumo-ohiturei oso loturik dagoen eredu sozioekonomikoari egozten dio bilakaera txarra. Kontsumo-ohiturak, ordea, gizarte-ereduaren ondorio dira, ezarritako eredu neoliberal-kapitalistak interes ekonomiko zehatzei ematen baitie lehentasuna beti ingurumenaren aurretik, baliabideak ahitu egiten direla eta baliabideok egoki kudeatzea ezinbestekoa dela erabat ahaztuta.



1. BALORAZIO OROKORRA

- *Gizartearen parte-hartze hutsala*

Planaren alderdi positiboen artean, Jaurlaritzak parte-hartzea nabarmentzen du. Aitzitik, dokumentua prestatu eta garatu den bitartean, ez da gizarte-erakundeen batere parte-hartzerik izan.

Berriro ere, propaganda-interesei begira erabiltzen da parte-hartze terminoa. Parte hartzea ez da jardunaldi batzuetan entzule egotea, aurretik finkatutako irizpideen inguruan aritzeko, mota guztietako agentek bertan elkartuta eta, guztira, denentzat, ordubeteko hitz-txanda zehaztuta; are gutxiago, gainera, besteen iritzia, gero, inon ere islatzen ez badira. Parte-hartzea mota guztietako iritzi eta kritikak entzutea baino gehiago da, iritzi eta kritika horiek aintzat hartu behar dira eta. Bestela jokatzek kultur demokratiko eskas-eskasa baino ez du islatzen.

- *Neurri zehatzik eta aurrekonturik gabeko plana*

Planaren alderdirik deigarrienetako bat neurri zehatzik ez jasotzea da. Bitxia bada ere, aurrean daukagun Plan horrek ez du Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako eginbeharrak jasotzen.

Era berean, bitxia da ikustea nola testua justifikatu ezinezko erabaki hori zurrizten saiatzen den. Bertan esaten denez, neurrien ordez helburuak aurkezteak "autoexijentzia-maila handiagoa adierazten du, erronka gizarteari ingurumen-emaizak aurkeztea baita." Helburuak aurkeztea beharrezkoa da, argi dago, baina Jaurlaritzak helburuok betearazi egingo dituela esatea ere funtsezkoa da.

Halaber, Programari ez zaio datozen ekitaldietarako aurrekontu-zuzkidurarik esleitu. Beraz, ez dakigu zer neurri hartzeko asmoa duen Jaurlaritzak, ez eta zenbat diru gastatu gura duen ere, programaren indarraldiko urteetan ingurumen-politikak garatzeko eta betetzeko.

- *Helburuak: hainbat kasutan, ez dira egokiak, eta ezin da betetze-mailaren jarraipenik egin*

EZehaztutako helburuei dagokienez, garrantzitsuak diren batzuk ez egotea azpimarratu behar da: hondakinen murrizketa, azpiegiturak,...). Beste helburu batzuek gai garrantzitsuei erantzuten diete, baina helburuon zehaztapena engainagarria da (airearen kalitateari buruzko atala, esaterako).

Neurketa eta emaitzen jarraipena helburuen taulan zehaztu dira. Baina urtero emaitzen jarraipena egitea ahalbidetu



beharko luketen datuek "oso aspaldiko" urteak hartzen dituzte erreferentziatuz, eta zenbait helburutan, abiatzeko daturik ere ez da jaso. Horrela ez dago IEParen emaitzen jarraipen egokia egiterik.

Horrez gain, helburu batzuk ez dira batere asmo handikoak, nahiz eta, beste helburu batzuen kasuan, kontrakoa gertatu; hau da, bete ezinezko helburuak zehaztu dituzte (Kyotoko Protokoloa betetzeari buruzkoa, adibidez).

- *Planak ez ditu aipatzen oso garrantzitsuak diren alderdi batzuk*

Uingurumen-programek ingurumenean zuzeneko eragina duten elementuei erreparatu behar diete. Bada, onartutako Programan ez da hori gertatzen, bere helmenetik kanpo uzten baititu industria, azpiegiturak, merkataritza-zentroak garatzeko politika, etxebizitzak eraikitzeke politika eta funtsezko beste hainbat alderdi. Ataza horiei ekin gabe ezinezkoa da ingurumenplan egokirik egitea.

Horrek argi uzten du Eusko Jaurlaritzak bigarren mailan jartzen duela ingurumenaren garrantzia. Politika zehatzak garatu behar direnean, tartean diru asko eta asko jokoan dagoelarik, negozioa lehenesten dute ingurumenaren kaltetan. Horregatik

politika sektorial horiek guztiak ageri ere ez dira egiten planean.

- *Ikuskapena, hutsaren parekoa*

Onartutako IEPak ez du ingurumen-ikuskaritzarekin loturiko zereginik aipatzen. Ez legoke txarto alderdi horretara zer baliabide zuzenduko diren, zer-nolako emaitzak lortzen diren, eta datozen urteetan zer egiteko asmoa duten jakitea. ELAren iritziz, berebiziko garrantzia duen alderdi horren garapena oso eskasa da.

2.

ALDERDI NABARMENGARRIEI BURUZKO BALORAZIOA

Atal honetan, ELAk azpimarragarrien deritzen gaitako batzuk baloratuko ditugu. Alderdi horien bilakaerak ideia egokia ematen du ingurumenean, oro har, gertatzen denari buruz.

2.1. AIREAREN KALITATEA

Ingurumen Esparruko Planak honako helburu hau ezartzen du:

"Lurralde osoan, airearen kalitatea hobetzea, pertsonen osasunean eta bizi-kalitatean duen eragin berezia dela eta, hiriguneei bereziki erreparatuz".



A) EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Datuak nahiko esanguratsuak dira: airearen kalitatea ez da ona, eta gero eta udalerrri gehiagok gainditzen dituzte European ezarritako mugak.

2004	2005
Bilbo	Bilbo
Barakaldo	Barakaldo
Basauri	Basauri
Alonsotegi	Alonsotegi
Erandio	Erandio
Portugalete	Portugalete
Zierbana	Zierbana
Durango	Durango
Zornotza	Zornotza
Arrasate	Arrasate
Errenteri	Errenteri
Lezo	Lezo
Beasain	Beasain
	Abanto-Zierbana
	Getxo
	Lemoa
	Azpeitia
	Gasteiz

Eta egoera horrelakoa izanik ere, aurreko IEPan hartutako konpromisoak bete gabe geratu dira. EBk airearen kalitateari buruz finkatutako irizpideak ez dira betetzen. Izan ere, inguruko aireko partikulen balioek (PM10) urtero –eta urtez urte gero eta udalerrri gehiagotan– gainditzen baitute 1073/2002 EDan xedatutakoa.

Arautegian finkatutakoaren arabera, gehienez 35 egunez gainditu daiteke partikula lodi edo PM10 deritzenen 50 mikrogramo/m³-ko muga. 2003tik aurrera, maila hori urtero gainditu da, 2004an 16 udalerritan, eta 2005ean 18tan, hain zuzen ere.

Airearen kalitatea hobetzeko jarduketa-planak ez dira oraindik prestatu, nahiz eta 2005eko azarorako amaituta egon beharko zuketena. 1073/2002 EDaren XII. eranskinean plan horien gutxienezko edukiak zehaztu dira, hala nola kutsadura murrizteko hartutako neurri edo proiektuen gaineko informazioa, jarduna garatzeko egutegia, airearen kalitatean espero den hobekuntzaren estimazioa, eta helburuak lortzeko aurreikusitako epea.

Orain arte, diagnostikoak baino ez dira prestatu eta argitaratu (2007ko urtarrilean), kutsadura murrizteko hartutako neurri edo proiekturik ez, ordea. Ildo horretan, ezarritako maila gainditzen duten udalerrietako



udalen planak prestatzeko eta abiarazteko konpromisoa exijitu behar da.

Arautegiaren urratze horiek eragin larria dute ingurumenaren osasunean eta osasun publikoan, bai eta dagokien herrietako biztanleen bizi-kalitatean ere.

B) 2007-2010 IEPa

Abiapuntua hori izanik ere, Plan berrian jasotako helburuei ez deritzegu oso asmo handiko, lehengo ildo berberetik doaz eta.

- Osasun publikoa bermatzeko eta oraingo narriadurak kliman, ingurumenean eta herritarren osasunean –batez ere adinekoenean eta umeenean– eragiten ari den ondorio larriak arintzeko helburu lau-soak.
- Urtean 50 mikrogramo/m³-ko muga gainditu daitekeen 35 aldiko gehienezkoa betetzeko konpromisorik ez da hartu, nahiz eta, gogora dezagun, manuak inolako perdoi-marjinarik ez duen, EBren aginduz, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera.
- 2005ean 25 eguneko muga hori gainditu duten udalerrri guztietan eta mugako balioak gainditzeko arriskua duten airearen kalitate ezin hobea bermatzeak izan beharko luke jomuga edo betekizuna. Arriskuko egoera honetan erantzuki-

zun esanguratsua duten jarduerak kontrolatzeko edo ezeztatzeko neurriak aurreikusi behar dira.

- Giza osasuna babesteko 20 mikrogramo/m³-ko urteko muga urtaro guztietan betetzeko konpromisoa hartu beharko luke IEP berriak, horixe baita EBn 2010eko urtarrilerako aurreikusitako gehienezko balioa.
- Inon ere ez da aipatzen enpresek egoera honetan duten erantzukizuna, eta ez da enpresen inplikazioa exijitzeko neurririk ezarri. Industriako jarduerak zuzeneko eragina dute isurpenetan eta, ondorioz, airearen kalitatean ere; beraz, enpresen konpromisoa eta ahalegin handiagoa behar dira, bai eta administrazioak enpresei exijentzia-maila handiagoa ezartzea ere.

2.2. HONDAKINEN SORKUNTZA ETA TRATAMENDUA

A) EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Euskal Herrian darabiltzagun ekoizpen-eta kontsumo-ereduek hondakin-sorkuntza etengabe handitzea dakarte. Sortzaile nagusia industria da, pertsonak sortzen dutenaren bikoitza (hiri-hondakin solidoak deritzenena) baino gehiago eragiten du eta.



Hona hemen 2004ko hondakin-sorkuntza (azken datu ezagunak dira):

- ✓ EAEn, industriak 2,9 milioi tona hondakin sortu zituen, eta horietatik 327.300 tona hondakin arriskutsuak ziren. Hiri-hondakin solidoak, berriz, 1,2 milioi tona izan ziren, hau da, 559 kg biztanleko. 2000. urtean, 526 kg hondakin sortu ziren biztanleko. Hondakin arriskutsuen bilakaera ere goranzkoa izan da; izan ere, 2000n 321.300 tona sortu ziren, eta 2004an, 390.000 tona.
- ✓ Nafarroan, industriak 711.000 tonatik gora hondakin sortu zituen, hondakin arriskutsuei dagozkien 47.100 tonak barne. Urtealdi horretan, 376.000 tona hiri-hondakin sortu ziren. Hiri-hondakinen eta hondakin arriskutsuen gehikuntzak batuta, 2000tik 2004ra arteko aldiko hazkundea %17,5koa izan zen.

B) 2007-2010 IEPa

Hondakinen sorkuntza gero eta handiagoa izan arren, IEPak bazterrean uzten du erabat, bestelako interesen eraginez, sorkuntza murriztu edo minimizatu beharra. Guztiz ahazten du hondakinen esparruan oinarri-oinarrizkoa den abiapuntua.

Hondakinak tratatzeko eta suntsitzeko azpiegiturak, oro har, plan sektorialetan xedatutakoaren arabera doaz aurrera,

batez ere hondakinen suntsiketari dagokionez. Atal horretan, justifikatu ezinezko protagonismoa ematen zaio errausketari.

Industriaren eremuan teknologia garbiak ezartzeko ataza anekdota huts gisa azaltzen da. Ikerketa teknologikoak industriaren barruan dauden zenbait hondakin-korrante suntsitzeko aukera ("balorizazioa") aztertzen dihardu gehienbat, ordeko beste hautabiderik ez balego bezala. Administrazioaren lehentasun bakarra horrelako hondakinak erraustea da. Erraustea ez ditu arazoak konpontzen, areagotu baizik, osasunean eta ingurumenean ondorio kaltegarriak dituelarik. Insitutzioek errealitate hau alde batera uzi eta erraustea inposatzera heltzen dira nahiz eta horri uko egiten dion gizarte mugimendu garrantzitsu bat egon, Gipuzkoan bezala.

Esandakoagatik, hondakinen sorkuntza (batez ere hondakin arriskutsuena) murriztu egin behar da, nahiz eta IEPak horren gainean ezertxo ere ez esan. Horrez gain, behar-beharrezkoa da hondakinen birziklapen-tasa igotzea, eraikuntzako eta eraikin-suntsiketako hondakinen berrerabilpena eta birziklapena lortzea, eta hiri-hondakin solidoetako gai organikoen %15 gutxienez konpostatzea, batere isurpenik ez eragiteko xedea bilatzeaz gain. Beharrezkoa da, gauden (altzari, etxeko tresna eta gainerako aparatu elektriko zein elektronikoena)




balio-bizitza luzatzea, kontsumo-ondasunen berrerabilpenarekin batera.

2.3. GARRAIOBIDEEN BANAKETA

IEPak honela dio:

"Pertsonen mugikortasun-eskaria kudeatzeko, garraio bideen banaketa berrantolatzea, oinezkoen, bizikleten eta garraio publikoaren pisua areagotuz. Merkantzien garraioa itsasoko eta tren bidezko garraiorantz bideratzea eta errepideko garraioa murriztea."

A) EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA



Euskal Herrian, une honetan, garraioaren egoera kezagarria da. Administrazioak errepidearen aldeko apustu argia egin du, trenbidea hiltzorian utzita. Ibilgailu pribatuen eta kamioien kopurua gero eta handiagoa da. Pertsonen eta merkantzien mugikortasun-beharrak ez daude estalita; errepideak gero eta kolapsatuago daude, eta, nahaspila antolatzen lagundu beharrean, mugikortasuna areagotuko duten azpiegiturak eraikitzeke baimena ematen dute.

Mugikortasuna %2,5 hazi da urtean. EAEn, mugikortasunaren hazkunde hori ibilgailu pribatuak estali du nagusiki.

2002-2006 IEPan zehaztutako helburu gehienek beteta egon beharko zuketaren arren, gehienak hasi baino ez dira egin; adibidez: EAEko Bizikleta Bideen Plan Zuzentzailea prestatzea; hiriko eta hiri arteko bideak berrantolatu eta oinezkoen eta bizikleten tokia uzteko azterlana egitea; EAEko eremu osoko garraio publiko guztirako informazio-leihatila bakarra irekitzea eta bidaia-txartel bakarra sustatzea; garraio-azpiegituren eta zerbitzuen LPSak berriz aztertzea, IEParen jarraibide eta helburuetara egokitzeke, eta abar.

Era berean, EAEn motorerik gabeko garraiobideak sustatzeko osoko estrategia diseinatzeko eta gauzatzeko helburua abian jarri ere ez da egin. Hirigune garrantzitsuenetako guztizko bidaiari-garraioan garraiobide kolektiboari parte handiagoa emateko asmoa eta beste helburu batzuk, berriz, kontrako noranzkoan doaz; izan ere, Donostialdean eta Gasteizen, adibidez, ibilgailu pribatuen erabilera areagotu egin da, garraio publikoaren kaltetan.

Baina hori ez da dena: 2012ari begira, errepideko azpiegitura berrietarako inbertsioen aldean ingurumenarekiko begirunetsuagoak diren garraiobideetarako azpiegituretan 2001ean egindako inbertsioen proportzioa %20 handitzeko asmoa zuen euskal administrazioak. Bada, epearen erdia iragan delarik, positibo deritzote, 2006ean, zego-kionaren %10era iritsi izanari, Metro Bilbao, Euskal Y trenbidea, itsasoko autopistak eta antzeko inbertsioak eginik.

Datu bat ere ez da ageri bidaiarien garraio pribatutik publikora aldatzeari buruz, ez eta errepideko garraioa murriztu eta beste batzuk sustatzeari buruz ere; baina datu orokorren arabera, eta bi helburu horiek gauzatzeko neurririk eza ikusita, logikoa da ezer egiteko asmorik ez dagoela pentsatzea.

C) 2007-2010 IEPa

Abiapuntua oso konplikatua da, epealdi berria hasteko. Honako bi helburu hauek lortu nahi dira:

- Bidaiariak daramatzaten garraiobideen banaketa berrantolatzea, oinez, bizikletaz eta garraio publikoaz ibiltzeko joera sustatuz.
- Merkantziak daramatzaten garraiobideen banaketa berrantolatzea.

Planteatzen diren jarduketak eskasak eta mugatuak dira. Batzuk aurreko IEPtik datoz (baina ez dira inoiz abian jarri), eta beste batzuk asmoen adierazpen hutsa dira (aurrera egitea, bideragarritasuna aztertzea, sustatzea, definizioa eta abiarazpena prestatzea...), ez eperik, ez neurri zehatzik aipatu ere gabe.

Garraioaren inguruko arazoak oso ondo definiturik daude dagoeneko, eta berehala gauzatu behar diren jarduketak eta neurriak eskatzen dituzte.

Bidaiariak oinez edo bizikletaz ibiltzea eta garraio publikoa erabiltzea hauta dezaten lortu nahi izatea eta horretarako baliabide nahikorik ez ipintzea eta daudenak ere ez bultzatzea kontraesankorrak dira. Gaur egungo garraio-politikak mugikortasuna areagotzera jotzen du. Merkantziei dago-



kienez, ez da arazoa zuzentzeko benetako borondaterik ikusten.

Gaurko gizarte-ereduak inguraldeetan ezartzen ditu merkataritza-zentro handiak, industrialdeak, bizitegiak eta abar, eta horrek areagotu egiten du mugitu beharra. Ondorioz, ibilgailu pribatuaren erabilera ere handitu egiten da, bai eta errepideko merkantzia-garraioa ere. Garraio publikoak ez die oraingo mugikortasun-beharrei erantzuten. Eskumenen gehiegizko banaketak ere are zailagoa egiten du egoera, ezinbestekoa baita instituzioen artean koordinazio egokia egotea eta plangintza elkarrekin egitea.

Garraioaren gaineko osoko planteamendua behar da, neurri partzialik gabe. Eskaria birbideratu beharrean, kudeatu baino egin nahi ez izateari konformista deritzogu.

2.4. LURZORUAREN ERABILERA

Hauxe da IEParen asmoa:

"Lurraldean diharduten sektore guztien baterako plangintza koherentea lortzea, lurraldearen artifizializazio- eta zatikatze-arazoak konponduta gera daitezen".

A) EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Administrazioak berak ezagutarazi dituen ingurumen-adierazleen arabera, 1994 eta

2005 bitartean, EAEko guztizko azalera artifizializatuia %5,2 izatetik %6,5era igaro da. Gora egin dute bai kalifikatutako bizitegi-azalerak (4.854 hektarea gehiago), bai jarduera ekonomikoek okupatzen duten azalera (2.908 hektarea gehiago), bai eta, jakina, garraio-azpiegituretarako azalera ere (671 hektarea gehiago). Ditugun azken datuak 2005ekoak dira, eta 452 hektarea gehiago lurzoru artifizializatu gehitzen dituzte.

IEPak porrot egin du ingurumen-irizpideak udal hirigintzaren plangintzan txertatzeko atazan. Askotan, eraikin-dentsitate urriaren kontra egitea hautatu dute, eta milaka txalet eta etxebizitza adosatu proiektatzen dituzten Arau Subsidiario eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak onartzea ahalbidetu dute. Horrek argi erakusten du diskursoaren eta praktikaren artean dagoen jauzi handia.

Onartu diren LPSek (Lurralde Plan Sektorialek) arau-estaldura ematen diote "lurzoria artifizializatzeko" prozesu hazkor eta jasanezinari.

LPpek (Lurralde Plan Partzialek) onartzeke jarraitzen dute, edo astiro-astiro onartzen dira, LPSen lehentasunak baldintzaturik eta desnaturalizaturik (LPsek energia eolikoa, errepideak, trenbide-sarea - AHTa, industriako ekipamenduak, merkataritza-zentro



handiak eta abar xedatzen dituzte). Horrela ezinezkoa da plan horiek euren zeregina betetzea eta lurraldeko desorekak zuzentzea.

B) 2007-2010 IEPa

Honako bi helburu hauek finkatu dira aldi berrian:

- ✓ Lurraldean diharduten sektoreen gaineko baterako plangintza koherentea lortzea, lurzoruaren artifizializazio- eta zatikatze-arazoak konponduta gera daitezen.
- ✓ 2010ari begira, lurraldearen artifizializazio-tasa 0,5 ha/egun-eko gehienekora murriztea.

Planean aurreikusten diren jardunbideak aurreko IEPtik datoz herrestan. Helburuen konplimendua Ingurumen Inpaktuari buruzko Baterako Ebaluazioaren menpe dago; baina oraingoz horrek ez du emaitzarik ekarri.

Aurreikusi duten lur-galera –urtean 183 ha-koa– onartezina da. Lurraldea metropolizatu nahi duen gizarte-ereduaren ondorioa da: inguraldeetan, bizitegiak, merkataritzazentro handiak eta abar eraikitzen dituzte; berdeguneak desagertu egiten dira, eta gero eta baliabide gehiago gastatzen dira, jasanezintasunerantz joaz.

Ahalezkoa ez ezik, ezinbestekoa eta premiazkoa ere bada lurraldea antolatzeko bestelako eredu bat taxutzea, etorkizunari begira eratutako gizarte eztabaida batean oinarrituta.

2.5. KLIMA-ALDAKETA (BEROTEGI-EFEKTUKO GASAK. ENERGIAREN SORKUNTZA ETA KONTSUMOA)

"Berotegi-efektuko gasen isurpenak mugatzea, karbono gutxiko ekonomiaranzko geure igarobidea eginez. Klimaldaketarako egokitzapena kudeatzea, aurreikusitako inpaktuekiko dugun zaurgarritasuna minimizatuz".

A) EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Karbono dioxidoa berotegi-efektuko gasen isurpenetan parte handiena dagokion gasa da, isurtzen diren gasen %88 baita. Isurpen gehien eragiten dituzten sektoreak energia, garraio eta industria sektoreak dira. Euskal Herria gero eta urrunago dago Kyotoko Protokoloan finkatutako muetatik:

- 2005ean, isurpenen gehikuntza 1990ekoaren %45,3koa izateko helburua ezarri zen, muga %15ean dagoen arren.
- Energia eta garraio sektoreen kasuan, bilakaera gorantz doa, isurpenak, hurre-



nez hurren, %199 eta %101 hazi dira eta. Industriari dagokionez, %28 murriztu dira.

2001ean ziotenez, 2005erako Energia Estrategiaren arabera, aurtengo ekitalditik aurrera, EAEko CO2 isurpenak 17 milioi tonatan egonkortuko ziren. 2005ean, 23 milioitan geunden.

B) 2007-2010 IEPa

Berotegi-efektuko gasen isurpenak zuzeneko eragina du klima-aldaketan. Aurreko Planak "klima-aldaketaren eragina murriztea" aipatzen zuen, klima-aldaketa onartu beharreko zerbait gerezina eta kontrolaezina bailitzan.

Neurrietan, berriro ere, erabat ahazten dute aurrea hartu beharra: energia-instalazio berriak eta eraginkorrako abian ipini, fuel-olioa eta ikatza darabiltzaten instalazioak ordeztu, garraioan erregaien ordezpina (biodiesela) bultzatu, energia-aurrezpina sustatzeko zerga-politika abiarazi, edo babes ofizialeko etxebizitzetan energia-eraginkortasuneko ziurtagiriak exijitu, besteak beste.

Bilakaera negatiboa dela onartu beharrea eta bai garraio, energia eta industria sektoreek bai etxeetan eragindako isurpenak behar bezala urritzen ez direla kontuan hartu gabe, aurrerantz egiten dute ihes,

2010erako Energia Estrategia berriak, Kontsumo Arduratsurako planak edo Klima Aldaketa kudeatzeko Bulego berriak konponbidea ekarriko dutela esanez.

Atal honetan, helburu berriak asmo handikoak dira (Kyotoko Protokoloa betetzea), klima-aldaketak, bai hemen, bai nazioartean, hartu duen ikuspegi politiko eta sozial berriari erantzunez.

Konpromisoak gehiago eta zenbakarriagoak dira, baina eskasak, hala ere. Zerbait hobetu da, baina gutxi. Lehenengo helburua, hau da, Kyotoko Protokoloan zehaztutako baldintzak 2010erako betetzea, ez da berria, baina oraingo politiken bidez, lortezina da. Bigarren konpromisoa karbonoaren hustubideetako finkapena areagotzea da, baina ez eperik, ez konpromiso kuantitatiborik ez da zehaztu.

IEP berriak ez du isurpen-gehikuntza iraunkorra galarazteko ez neurri ez konpromiso zehatzik aurkezten.

3.

ONDORIOZTAPENAK

Beraz, asmo urriko egitasmo makala da, aurreko beste programa batetik dator, eta ez da modu objektibo eta errealean baloratu. Administrazioa baikorregia da programaren lorpenei buruz. Aitzitik, jasangarritasun



sunaren adierazle fisikoek eta ingurumen-adierazleek urtez urte erakusten digute egoera ez doala hobera, kezkarria dela, eta, aldaketa eragiteko, asmo hutsen adierazpena ez dela nahikoa.

Gizarte mugumenduen parte-hartzea hutsala izan da. Antolatutako eztabaida-foro bakanetan azaldu ziren iritziak eta iradokizunak inon ere ez dira ez baloratu, ez aintzat hartu. Zentzu horretan, Jaurlaritzaren kultura demokratiko eskasaren beste adibide bat baino ez da Plana.

Alderdi hori ez zaie interesatzen, eta, era berean, ez zaie interesatzen Jaurlaritzak sasihelburu eskas horiek lortzeko zer baliabide erabiliko dituen jakin dezagun; zaila izango da emaitzak ezagutzea eta balortzea, neurririk ez dagoela kontuan hartuta.

Euren zereginak bete egin dituztela sinestazteko aurkeztu duten programa horrek "ahaztu" egiten ditu ingurumenean zuzeneko eragina duten ezinbesteko alderdi asko. Alderdi horiei ekinez gero, oraingo gizarte-eredua aldatu egin beharko litzateke, eta Jaurlaritzakoek ez dute horretarako inolako asmorik.

Jaurlaritzak arlo honetan erakusten duen lidergo-faltak eta koordinazio instituzional eskasak argi islatzen dute ekosistemarekiko benetako interesaren tamaina. Ingurumen-aldagaia gainerako politika guztietan txertatzeko asmoa eta zeharkakotasuna ez dira inon aintzat hartu. Ingurumenaren egoera ona eta egoera hobetzeko borondatea aldarrikatzeko propagandak ez du ezertarako balio, CO2 isurpenen mailak gero eta altuagoak direlarik, lurzoruaren artifizializazio-tasa modu kezkarrian hazten delarik, ondorio kalkulaezinak izango dituzten azpiegiturak baimentzen direlarik...

Plan osoan, behin ere ez da aipatzen kontrol handiagoa eta ikuskapen hobea egin beharra. Enpresariak inon ere ez dira aipatzen, ez eta enpresetan hobekuntza teknikoak egin beharra ere.

Hain modu interesatuan erabiltzen den garapen jasangarri terminoak, antza denez, ekonomiaren hazkundearen inertziak lehenatzea baino ez bide du esan nahi. Oraingo gizarte- eta ekonomia-sistema ez da inola ere jasangarria. Sistemaren egiturak aldatu eta ekoizpena, kontsumoa eta garraioa murriztu egin behar dira.

